



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko ekainaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 9an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : JORAJURIA Ramuntxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 2a

Afitxatze eguna : 2023ko ekainaren 2a

7. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESKAERA EZKER PARETAREN ENERGIA BERRIZTATZEARENTZAT (7.10 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari aurkeztu dio, ezker paretako argiteria LED argiez ordeztoko proiektua.

Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzea funts berdeei eta beste erakunde dituztatzailerei ere.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, aurkeztu zaion ezker paretako argiteria LED argiez ordeztoko proiektua,
- **ESKATUKO DITU**, dirulaguntza funts berdeei eta bestelako erakunde diruztatzailerei eskatzea.
- **AURREIKUSIKO DITU**, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko ekainaren 9an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/06/16an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/06/16an.